



Ahotsak eta itzalak. Maixa Zugasti

ISBN. 978-84-9109-286-5

Orriak: 240

Saila: Narratiba saila, 110

Salneurria: 18 €

Aurkezpen ekitaldia
2018ko apirilaren 19a

Argumentua

Gerrate Zibilak Euskal Herrian eztanda egin baino lehen, Luisek eta Arturok muga igaro dute aitarekin. Atzean, ama eta arreba txikia geratu dira, handik gutxira, uholde baten moduan, hondamendia ekarriko duen gerratean murgilduta.

Erbestean, Sarzinako egoitza diplomatiko batean, Dapestegui Baithan, biziko dira hilabete batzuetan, eta handik ere, bat-batean egin beharko dute ihes. Biharamunean, egoitza horretan beste sarraski bat gertatuko da.

Urteak igaroko dira eta Luisek iraganean gertatutakoa ikertuko du, ondoren, eleberri bat idazteko. Egia osoa, ordea, Terexa bere emazteak osatuko du eta senarrari ezkutatu egingo dio...

Izenburua: Ahotsak eta itzalak

Inazio Mujikaren oparia da izenburua edo harekin elkarlanean sortutakoa. Iragana argitu asmoz, oroitzapenetan murgiltzen denean, Luisek ahotsak aurkitzen ditu, baina, baita murmurioak, ahapeka esandako hitzak eta isiltasunak ere. Egiaren bila, itzalekin eta argiekin egiten du topo.

Azala

- Eraikuntzak eleberriko gertaera batekin du zerikusi zuzena.
- Bidea: pertsonaiak erbestera eramango dituen bidea, Luisek berriro iraganera egin beharko duena da, egiaren eta oroitzapenen bila.

Ez da eleberri historikoa

- Egilearen helburua ez zen eleberri historiko bat idaztea: gerratearen ondorio latzak jasan zituen jende xumearen istorio bat osatu nahi izan du.
- Dokumentazio lana egiteko garaian, Aita Barandiaranek jasotako 136 txosten, erbesteratuen lekukotasun zuzen eta gordinak, erabakigarriak izan dira. Eleberrian, idazleak omenaldi txiki bat egin nahi izan dio Aita Basarte pertsonaiaren bidez.

Gaiak

- Muga: muga zeharkatzea gerratearen eta bakearen lerroa zeharkatzea da; ahanztura eta egiarena...

- Erbestea: eleberria Sarzinan kokatzen da. Erromatar soldaduek "Sarzina" deitzen zioten gainean eraman beharreko tresneria pisutsuari. Horixe bihurtzen da edozein erbesterearentzat atzerria: garai pisutsua, jasanezina, jarrera abegitsuak eskertzen diren aldia. Horregatik, eleberrian, "Sarzina" izeneko herrialdea erbestearen sinbolo bihurtzen da.

- Heriotza: eleberrian oso gai garrantzitsua da: batzuetan, bizitza berari lotutako gertaera mingarria; besteetan, gerratearen ondorio latza.

- Besterik: maitasuna, adiskidetasuna, ankerkeria...

Gaurkotasuna

- Memoria historikoaren eraikuntzan, gizarte guztiarentzat eta, bereziki, gazteentzat, oso garrantzitsua da gure egiaren ezagutza.

- Gaur egungo erbestea: ACNUR-en datuen arabera, gaur egun, munduan, 65,3 milioi pertsonak utzi dute beren herria horrelako arrazoiak direla medio.

Besterik

Egileak 10 urte igaro zituen duela 18 urte idazten hasitako istorio hau gauzatzen. Arrazoi nagusia zen haren semeek literaturaren bizipen ederra izatea, eta, horregatik, haiek lo zeudenean idazten zuen.

Maixa Zugasti